

# ETA HAU HEMEN GERTATU BALITZ?

## / TALDEKA BETETZEKO FITXA /

Indarkeria sexualei aurre egiterako orduan gure unibertsitateak izan ditzakeen mugak aztertzeko hurrengo taula proposatzen dizuegu. Horretarako, benetako kasuetatik abiatuko gara, hurrengo galderari erantzun asmoz: Zer gertatuko litzateke egoera hau gure unibertsitatean suertatu balitz?

Hasteko, taldeka hurrengo galdera hauek erantzun ditzakegu:

Uste duzu kasu honetan unibertsitateak zerbait egin beharko lukeela? Neurriak hartu badira, uste duzu neurriok egokiak izan direla? Nahikoa izan al dira? Gure unibertsitateko protokoloaz dakiguna kontutan hartuz, nola konpondu ahalko zitekeen kasu hau hemen gertatu balitz? Zein litzateke kasuaren konponbide egokiena zuen ustez?

Taula betetzeko beste galdera hauek ere erantzun beharko dituzue:

Ze muga eta zailtasun dauzkagu egoerari aurre egiteko?  
Ze indargune ditugu unibertsitatean egoera horri aurre egiteko?  
Ze baliabide dauzkagu eskura?  
Azterketa hau kontutan hartuz, ze behar uste duzue sortzen direla?  
Ze gabezi dauzkagu?

MUGA ETA ZAILTASUNAK	INDARGUNE ETA GAITASUNAK	BEHARRAK